

Donostiako Giza Eskubideen 19. Zinemaldiko Gazte Epaimahaiaren oinarriak. 2022

Dokumentu honek jasotzen ditu Donostiako Giza Eskubideen 19. Zinemaldiaren Gazte Epaimahaikideen izen-emate prozesua, eginkizunak eta eskubideak.

Zinemaldia 2022eko apirilaren 1etik 8ra izango da, Victoria Eugenia Antzokian eta Antzoki Zaharrean. Donostiako Giza Eskubideen Zinemaldia Donostiako Udalak antolatzen du Giza Eskubideen Bulegoaren eta Donostia Kulturaren bitartez.

Zinemaldiak honako hauek eskaintzen ditu:

- Gai sozialak jorratzen dituzten filmak, Donostian inoiz ikusi ez direnak. Batzuk, nazioarteko jaialdietatik datoz.
- Jarduera paraleloak: erakusketak, bisita gidatuak, solasaldiak, ...

Bere helburua herritarren kontzientzia kritikoa piztea da, giza eskubideen urraketan aurrean, eta pertsonak gizartea eraldatzeko jardun dezaten bultzatzea.

Zer da Gazte Epaimahaia?

Edizio honetan **18 eta 30 urte** bitarteko **90 gazte inguruk** osatuko dute. Beraiek erabakitzen dute nor izango den **Film Laburren Nazioarteko Lehiaketaren** irabazlea.

Nolakoa da izena emateko prozesua?

1. www.zinemaetagizaeskubideak.eus webguneko formularioa bete beharko duzu.
Azken eguna: martxoaren 7a.
2. **Zozketa** egingo dugu **martxoaren 8an**, 90 eskaera baino gehiago badaude.
3. **Zure helbide elektronikora esteka** bat bidaliko dizugu, gure web orrian kontsulta dezazun:
 - aukeratua izan zaren.
 - itxaron zerrendan zauden.
4. **Martxoaren 21a** baino lehen baieztatu behar duzu parte hartu edo atzera bota nahi duzun.



◆ Tel. +34 943 481 248 | zinema_gizaeskubideak@donostia.eus
www.zinemaetagizaeskubideak.eus | www.cineyderechoshumanos.eus

Zeintzuk dira nire eginkizunak?

1. **Martxoaren 31 an, 16:00ean**, Antzoki Zaharrera joan beharko duzu eta

- **NANa, telefono mugikorra eta musuko homologatua** eraman.
- Akreditazioa jaso.
- Lehiaketako film laburrak ikusi eta bozkatu. Bozketa mugikorrarekin egingo da QR kode baten bidez.

Garrantzitsua: derrigorrezkoa da egun horretan joatea zinemaldiaren epaimahaikide izateko. Saioa 16:30etik 20:30era izango da, gutxi gorabehera.

2. **Apirilaren 1-7 bitartean, gutxienez**, Victoria Eugenia Antzokiko **19:30eko saioen % 80ra** joan beharko duzu eta

- Akreditazioa sarrera-kontrolan erakutsi eta irteeran, bertaratze kontrola dela-eta.
- Film labur batek eta solasaldi batek osatzen dute saio bakoitza; eta, horietara joan beharko duzu. Ikusleek, pelikulen zuzendariak, protagonistek, ekintzaileak eta giza eskubideetan adituek parte hartzen dute solasaldietan. Saio bakoitzak, 2 ordu eta erdi inguru irauten du.

12
25
6n
I

Zer eskubide dut epaimahaikide izateagatik?

Gonbidapenak:

- Festibaleko saio guztietarako sarrera bat, bai 19:30etan eta baita ere beste guztietara.

Unibertsitateko diploma eta ECTS:

- Gazte Epaimahaiko kide zarela egiaztatzen dizun diploma jasotzeko diploma.*
- Emandako orduak adierazten dituen ziurtagiria, parte hartu duzun saioen arabera. Ziurtagiri honekin ECTS 1 bat lor dezakezu, UPV/EHUeko eta Mondragon Unibertsitateko Ikus-entzunezko Komunikazioa graduko ikaslea bazara. Deustuko Unibertsitatekoa bazara, berriz, 2 ECTS.*

Katalogoa eta esku-egitaraua:

- Filmei, gaiei eta jarduera paraleloei buruzko informazio guztia: erakusketak, solasaldiak, hitzaldiak.

* Saioen % 80era joan behar duzu diploma, ziurtagiria eta abonua jasotzeko.



◆ Tel. +34 943 481 248 | zinema_gizaeskubideak@donostia.eus
www.zinemaetagizaeskubideak.eus | www.cineyderechoshumanos.eus

Antolakuntzak COVID-19 dela-eta, babes eta higiene neurriak betetzen direla bermatzen du.
[Neurriak.](#)

Donostiako Giza Eskubideen Zinemaldiko denboraldian egon daitezkeen neurriak eta mugikortasun murrizketak izango dira Gazte Epaimahaiaren parte-hartzean kontuan hartuko direnak.

Donostian, 2022eko otsailaren 2an